LEZO

# AGENDA Kulturala

2020 // IRAILA - ABENDUA



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

# ONGI etorri




**Sarrerak edo gonbidapenak aldez aurretik hartzea gomendatzen da**
Se recomienda adquirir las entradas o invitaciones con antelación



**Leku mugatuak, indarreko araudiaren arabera**
Aforo según normativa vigente



**Pertsonen arteko distantzia gorde**
Mantén la distancia entre personas



**Maskara beharrezkoa**
Mascarilla obligatoria



**Sarreran gel hidroalkolikoa emango zaizue**
A la entrada se facilitara gel hidroalcohólico

LEZO

# Kulturala

Osasun-egoerak agenda hau  murriztea ekarri du. Alde batetik, egungo segurtasun-neurriak eta bestetik liburutegiko eraikinaren ezaugarriak direla eta, ezin dira egin ez literatura-solasaldiak ez ipuin-kontaketak. Beraz, ohiko formatutik behintzat desagertu egingo dira agenda honetako programaziotik. Horren ordez “Ipuin kapsulatuak” izeneko on-lineko egitasmo berri bat prestatu dugu. Ikus https://www.lezo.eus/eu/ipuin-kapsulak-2020ko-udazkena

Zinemako programazioarekin antzeko egoeran gaude; izan ere, aretoak horretarako aukera ematen badu ere, gaitza bilakatzen zaigu guztia behar den bezala kontrolatzea eta segurtasun-protokoloak eskatzen duenari  egokitzea. Horregatik, egitasmoa garatzen duen elkartearekin adostasunez hiruhileko honetan programaziotik kentzea erabaki dugu.

Azkenik, haurren eta helduen arte eszenikoen programazioari eusten diogula esan behar dugu. Edukiera-muga zorrotzekin, hori bai, eta udalak horrela erabakirik -kultur eragileen kalteak ahal den heinean ekiditeko eta kulturarako apustu zintzoa berresteko- udazkenerako aribidean dauden egitasmoei, honokoan aurreko agendatik  bertan behera eroritakoak gehitzen dizkiogu.

Erabiltzaile guztien gozamenerako izango delakoan gaude.

La situación sanitaria conlleva una reducción de lo que es esta agenda. Por un lado las medidas de seguridad actuales unidas a las características del edificio de la biblioteca no permiten las tertulias literarias ni los cuenta-cuentos, por lo que al menos en su formato habitual desaparecen de la programación de esta agenda. En su lugar hemos preparado un nuevo proyecto on-line llamado “Ipuin kapsulatuak”. Ver *https://www.lezo.eus/eu/ipuin-kapsulak-2020ko-udazkena.*

Con el programa de cine nos vemos en una situación similar, pues aunque la sala lo permita tanto para su control como para la adecuación a lo que el protocolo de seguridad exige resulta complicado. Por lo que de mutuo acuerdo con la asociación que dirige el proyecto, el cine desaparece de la programación de este trimestre.

Finalmente podemos decir que mantenemos la programación de artes escénicas infantiles y adultos. Con severas limitaciones en el aforo, si, y con la decisión municipal de minimizar las pérdidas del sector y al mismo tiempo reafirmar su firme apoyo a la cultura manteniendo en la programación de este trimestre eventos anulados de la agenda anterior junto con los que ya estaba previstos para esta nueva temporada.

Suponemos que esto será del agrado y satisfacción de todas las personas.

# HAUR ANTZERKIA ////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean



URRIAK **9**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## KASKAROT

**Atx teatroa. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 2€

Aner gizarte distopiko batean bizi da, non dantzatzea debekatuta dagoen. Anerri izugarri gustatzen zaio dantza egitea eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot Anerren "alter egoa" da. Bere ingenio eta zentzuaren bidez, Anerri erakutsiko dio bere egoerari buelta ematen eta arauen aurrean bere adierazpen askatasuna lehenesten.



URRIAK **23**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## BURBUJA

**Bubles. KATALUNIA.** TESTURIK GABE. 2€

Burbuila xaboi burbuila komedia zoroa da eta ikuslea da protagonista nagusia. Abentura ugari biziko ditugu eta heldu eta haurren magia esnatuko dugu. Burbuila batek mila hitzek baino gehiago balio duelako, hemen aurkezten dizkizuegu xarmaz eta umorez beterik, forma guztietan. Gogoratu xaboi-ponpak desagertu arren, haien edertasuna eta magia betiko gorde ditzakegula.



AZAROAK **13**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## SAFARI

**La Baldufa. KATALUNIA.** EUSKARAZ. 2€

*Lío en la granja* antzezlanaren bi protagonistak, Piñote eta Calabacín, herrira itzuli dira, eta sabanan bete-betean harrapatu dituen gatazka azalduko digute. Hara joan dira lehoi bat modu misteriotsuan desagertu dela entzun dutelako. Beren ikerketalanetan, hainbati eskatuko diote laguntza: jirafari, tximinoari, elefanteari, krokodiloari…



AZAROAK **27**

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## ITALINO GRAND HOTEL

**Compañía La Tal. KATALUNIA.** TESTURIK GABE. 2€

Nork garbitzen ditu hoteletako milaka maindireak?
ITALINO hotelaren azken sotoan garbitegia dago. Bertan, pertsonaia bakarti batek arropa garbitu, lisatu eta lurrindu egiten du. Bakarrik bizi da, izara artean amets egiten du eta bakardadea ezkutatzen du makinekin hitz eginez eta bere itzalarekin jolastuz.



ABENDUAK **11**

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## COTTONDARRAK

**Anita Maravillas. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 2€

Cottondarra, iraultza industrialean eta mende hasierako emakumeen ehungintzako grebatan oinarritutako istorio dugu. Cottontarrek –amak eta hiru alabak– beren herria atzean utzi eta hirian bizitza berri bati ekitera doaz, baina gertakari batek beraien bizitzak eta gainontzeko emakumeenak behin betiko aldatuko ditu.



ABENDUAK **18**

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## OILAR BAT DAGO ZURE TEILATUAN

**Titiriguiri. MADRIL.** EUSKARAZ. 2€

**2016KO TOLOSAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIAN HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ONENAREN SARIA.** Oilar bat ezin mugiturik dago hiriko eraikin bateko teilatuan. Beheko bizilaguna jakin-minez dago, oilarraren kantuak behiarena dirudi eta. Horren zergatia galdetuko dio oilarrari, eta hortxe hasiko zaigu istorio zelebrea...

# MUSIKA / DANTZA / ANTZERKIA////////////////

Gezala Auditoriumean, 20:00etan igandetan



IRAILAK
**25**
Ostirala
20:00,
Herri eskolako patioa

## IKIMILIKILIKLIK

**Marie de Jongh. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. DOAN

**FETEN 2020 SARIA espazio eszeniko onenari.**
**Familia osoarentzat.**
“Sorginei sekulako beldurra nien umetan, nola irudikatuko nukeen ba ni neu urteen joanean sorgin bihurtuko nintzela”, kontatzen digu Ekhik berak, urteek aurrera egin ahala “sorgin” bihurtu den emakume edadetuak.

---




IRAILAK
**26**
Larunbata
22:00,
Herri eskolako patioa

## BERNARDA ALBAREN ALABAK

**BERTAN BEHERA / SUSPENDIDO**

**Orra** … **EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ.

Bernarda Alba eta bere bost alaben bitartez, gizartean, herrian, etxean eta familiako erroetan murgiltzen den obra taularatuko du oraingoan Lezoko antzerki taldeak. Gizarte eta tradizioaren zama askatasun oihuaren aurrean jarriko dute.
“Bernarda Albaren etxea”-ren bertsio propio bat, beti ere, Lorca-ren lanaren funtsa errespetatuz.

---



IRAILAK
**26**
Larunbata
22:00,
Herri eskolako patioa

## OLATZ SALVADOR

**EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. DOAN

Olatz Salvador (1990, Donostia) artistak hainbat urte daramatza musikan murgilduta. Skakeitan taldean hasi zuen bere bidea 2010. urtean eta egun, Euskal Herriko, Espainiar estatuko eta nazioarteko hainbat jaialdi eta aretotan jotzeko aukera izan du, besteak beste, Rototom Sunsplash, Biorritme Festival, Hatortxu Rock, Kutxa Kultur Festibala edota Viña Rock jaialdia.

---



IRAILAK
**27**
Igandea
20:00,
Herri eskolako patioa

## EL FUNERAL

**Che y Moche. ARAGOI.** GAZTELERAZ. GRATIS

Un grupo de músicos zíngaros que invitan al público a celebrar el funeral de su abuelo Dimitri, una sencilla trama que convertirá todo en un lío lleno de situaciones increíbles. Unos personajes explosivos el virtuosismo musical y la interacción con el público hacen de este funeral una increíble fiesta difícil de olvidar. Diez años de gira y miles de funciones avalan este espectáculo singular.

---

Ekitaldiak Herri Eskolako Patioan / *Las actuaciones serán en el patio de Herri Eskola*



URRIAK **4**

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## LA CELESTINA

**La escalera de tijera. EXTREMADURA.** GAZTELERAZ. 8€

'Celestina, La Tragiclownmedia', un montaje dinámico, muy movido, sin dar tiempo a un mínimo respiro. Una acción y otra, un cambio de espacio y otro más, un malabar con cuchillos y otro malabar, un número de magia con aros con cuerda, con monedas, con el uso del espacio también se compone la magia. Puro teatro a la más vieja usanza, pero muy actual.




URRIAK **18**

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## URBASA

**Hutsun & Ortzi. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 8€

"Hutsun" txalapartari nafartarrek eta "Ortzi" zirkuko artistak Urbasa obra aurkezten dute. Naturarekin harmonian bizi diren bi lagunen bizitza hankaz gora jartzen daegungo gizarteak eta industrializazioak kutsatutako beste lagun bat eszenan sartzen denean. Bizitza, harremanak, natura….une honetan inoiz baino biziagoak diren baloreak erakusten dizkigu obrak.



URRIAK **25**

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## FADOAK ENTZUTEN ZITUEN GIZONA

**Xake. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 8€

Castillako lurretan errepidean harrapatuta geratuko dira Ander eta Mikel. Egoerak sortzen duen intimitateari eta elkarrekin pasatzen duten denborari esker harreman berezia sortuko da bi mutilen artean eta kontu askoren inguruan gogoeta egiteko bidea emango du; zer da sentibera izatea? gizonak izan daitezke sentiberak? Nola harramantzen dira mutilak?



AZAROAK **8**

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## LA ISLA

**Histrion teatro. ANDALUZIA.** GAZTELERAZ. 8€

**Premio especial del jurado Feria de Artes Escénicas Palma del Río 2019.** Ada y Laura se enfrentan a un dolor profundo que se ha apoderado de sus vidas y las ha convencido de que no hay posibilidad alguna de escape. O quizá sí. Nos muestran la delgada línea que separa lo que sentimos de lo que podemos reconocer que sentimos frente a los demás y frente a nosotros mismos.

# MUSIKA / DANTZA / ANTZERKIA///////////////

Gezala Auditoriumean, 20:00etan igandetan



AZAROAK **15**

Igandea 20:00, Gezala Auditoriuma

## DESAHUCIA2

**Teatrapo. EXTREMADURA.**TESTURIK GABE. 8€

Bi ezezagunen erlazioa gero eta maitagarriagoa bihurtzen da gizatasun arrastoak proban jartzen dituzten egoera desberdinei aurre egitean.

*Dos personajes se van modelando en una relación cada vez más entrañable por medio de situaciones que ponen a prueba los pocos restos de humanidad que pueden ser salvados en un entorno hostil.*



AZAROAK **22**

Igandea 20:00, Gezala Auditoriuma

## JUANA LA LOCA

**Histrion teatro. ANDALUZIA.** GAZTELERAZ. 8€

Más de 200 representaciones y 3 nominaciones en los Premios Max de las Artes Escénicas 2015 (Mejor Espectáculo, Mejor Actriz Gema Matarranz y Mejor Autor Teatral Jesús Carazo). Juana, prisionera de su propio destino como mujer, como madre y como reina. El triste destino de una mujer sin ambición que sobrevivió a todos los que la repudiaron dejándola morir lentamente.



AZAROAK **29**

Igandea 20:00, Gezala Auditoriuma

## WHITE TRANS

**Node. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 8€

Dantza, mugimendua eta gorputz komunikazioaren bitartez bi dantzari eta aktore batek osatutako hirukoteak gure gizartean dagoen errealitate bat ikusarazteko eta goraipatzeko beharra da partekatuko dute. LGTBI+ komunitatearen errealitatea. Errebindikaziorako unea da, festa baterako unea, baina, batez ere, hausnartzeko unea eta borrokaren beharra partekatzeko espazioa da.



ABENDUAK
13

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## ABRÉ LA PUERTA

**Teatro del Temple-Tanttaka. ARAGOI-EH.** GAZTELERAZ. 8€

Una propuesta interdisciplinar y mestiza, en la que se unen palabra, música en directo, imagen, emoción y humor para mostrar una reflexión escénica sobre la realidad y el deseo del ciudadano del siglo XXI. Es por momentos testimonio íntimo, concierto de rock, viñeta de cómic, proclama incendiaria… pero sobre todo, un juego entusiasmado y placentero con el alma del espectador.



ABENDUAK
20

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## ZOAZ BAKE SANTUAN

**Txalo. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 8€

Andreak, bere bikote bizimodu aspergarriarekin amaitzeko, zirt edo zart, Gizona pozointzea erabaki du. Ekintza gordintze aldera, egin nahi duena aitortuko dio eta giltzapeturik dagoen etxe barruan azken orduak pasatzeko prest dago andrea. Baina, jakina... Aurreikusitako plana hankaz gora joango zaio. Lehertzeko moduko komedia da eta etengabeko ustegabez hornituta.



ABENDUAK
27

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

## MUTU

**Myriam Perez Cazabon. EUSKAL HERRIA.** EUSKARAZ. 8€

MUTU hutsik ez dagoen isiltasun trinkoaz ari da. Pertsonen arteko erlazioek isolamendutik ateratzen gaituzte. Elkarrekin erlaziona-tzeari utziko bagenio, ia... izateari utziko genioke. MUTU komunikaziozko hiru atal taularatzeko saiakera da. Isiltasunak hitzaren esanahi osoa hartzen du eta pertsonen arteko hartu-eman emozionala eta ulermena keinu txikienen bidez gorpuzten da.

# Kilometro LEZO

HURBILTASUNAREN KULTURA





BALANTZEA - BALANCE

## 2020 Kale Antzerkia Dantza eta musika bultzatuz

Ziurgabetasunaren bihotzean kokatuak egon arren Kultura berpizten hasterakoan gurea ezin zen beldurra izan. Une honetan kulturaren helburua ezin da izan ikusleak sortzea. Itxaropenak eta ilusioak elikatzea baizik. Edozeinentzat, udalak barne, une honetan ikuskizunak sustatzea ardura handia da, baina kulturgintzaren egoera ere oso gogorra da eta Kultur eragile askoren larritasuna begi-bistakoa bilakatu da.

Kultura izan da gure zibilizazioaren garraiobidea. Horrexegatik kultur sortzailea eta eragilea bermatu behar dugulakoan gaude. Konbentzimendu osoz eta baldintzarik gabe. Hau izan da bada gure Kilometro Lezoren oinarria eta aldi berean gure “Kultura Bonua”: izaera oso ezberdineko emanaldiak eta doakoak -ez kultura doakoa delakoz, baizik eta egoera berezi honetan publikoa ere saritu nahi izan dugulako-.

Bestalde, kultur jarduera denak, kalekoak zein barrukoak, protokolo batzuetara egokitu dira. Egokitzapen zorrotzak urruntze fisikoari eta lan egiteko moduari dagokienez. Kilometro Lezo guztion konplizitatea eskatu behar izan du: konpainiak, teknikariak eta publikoa. Jendearen segurtasuna bermatzeko antolaketan ahaleginak eta bi egin ditugu, konpainiek ere bai. Hau guztia ez da erraza izan ez arlo teknikoan ez eta ekonomikoan. Baina behin-behineko balantze honetan, konstatazio bat: Kultura segurua da eta, gainera, sendatu egiten du!

Eskerrik asko Lezo

## *2020 Teatro de calle impulsando la danza y la música*

*Aun estando en el epicentro de la incertidumbre, al empezar a programar actos culturales el miedo no debía imperar. El objetivo de la cultura en estos momentos no puede ser crear espectadores. Sino alimentar esperanzas e ilusiones. Para cualquiera, incluidos los ayuntamientos, la organización de espectáculos en estos momentos es una gran responsabilidad, pero la situación de la industria cultural es la que es y la angustia de muchos agentes culturales evidente.*

*La cultura ha sido el medio de transporte de nuestra civilización. Por eso creemos que debemos apoyar al creador y al agente cultural. De forma absoluta e incondicional. Esta ha sido la base de nuestro Kilómetro Lezo y al mismo tiempo nuestro “Bono Cultura”: actuaciones de carácter muy diferente y gratuitas no porque la cultura sea gratuita, sino porque en esta situación tan especial también hemos querido premiar al público.*

*Por otro lado, todas las actividades culturales, tanto de calle como cerradas, han tenido que adecuarse a unos protocolos. Adaptaciones rigurosas en cuanto al alejamiento físico y la forma de trabajar. Kilometro Lezo ha necesitado la complicidad de todos: compañías, técnicos y público. En la organización para garantizar la seguridad de la gente hemos hecho ímprobos esfuerzos, al igual que las compañías. Todo esto no ha sido fácil ni en lo técnico ni en lo económico. Pero en este balance provisional, una constatación: ¡la cultura es segura y además cura!*

*Gracias Lezo*





**Jakin ezazu osasun arloko agintariek emandako jarraibideetara egokitzeko prestatzen ari garela. Emanaldi guztiek babes eta higiene neurri zorrotzak beteko dituzte.**

**Queremos que sepas que estamos acondicionado el espacio para cumplir las instrucciones de las autoridades sanitarias. Todas las representaciones tendrán lugar bajo medidas de protección e higiene.**

## Maskara

Aretoaren barruan beharrezkoa da maskara erabiltzea eraikinera sartzean, emanaldian zehar eta eraikinetik ateratzean. Bakoitzak bere maskara ekarriko du.

## Mascarilla

Dentro de la sala  es obligatorio el uso de mascarilla durante el acceso, la representación y el desalojo. Cada uno traerá su propia mascarilla.

## Eskuak garbitzea

Antzokira sartzean beharrezkoa izango da eskuak garbitzea jende guztiaren esku egongo den gel hidroalkoholikoarekin.

## Lavado de manos

A la entrada será obligatorio lavarse las manos con gel hidroalcohólico que se pondrá a disposición de todo el público.

## Sarrerako ilararen kudeaketa

Darreran egongo den pertsonalak kudeatuko du ilararen eta bertaratutakoen arteko segurtasun-distantzia.

## Gestión de la cola de acceso

Habrá personal de la organización gestionando la cola y la distancia de seguridad entre los asistentes.

## Auditoriuma garbitzea

Gure instalazioak sakon garbitzen eta desinfektatzen dira emanaldi bakoitzaren aurretik eta atzetik: igarobideak, besaulkiak, eszenarioa, kamerinoak, …

## Limpieza del auditórium

Nuestras instalaciones se limpian y desinfectan a fondo antes y después de cada representación: pasillos, butacas, escenario, camerinos, etc.

## Aretoa

Auditoriumaren edukierak ez ditu 66 aulki gaindituko. Distantzia bermatzeko, aurretik esleitu zaizun besaulkiak hutsik dauden bi besaulkien artean edo igarobidea izango ditu alboetan.

## Sala

El aforo reducido del Auditórium no será superior a 66 butacas. Para garantizar la distancia, tu butaca preasignada estará situada entre una butaca adyacente vacía a ambos lados, o pasillo.

## Ateen irekiera

Auditoriumak emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko ditu ateak. Mesedez, ez itxaron azken unera arte antzokira sartzeko eta, behin antzokian, ahalik eta azkarren joan bakoitzari dagokion eserlekura.

## Apertura de puertas

El auditórium  abrirá sus puertas media hora antes del comienzo de la función. Rogamos no esperar al último momento para acceder al recinto y, una vez en el acudir a sus asientos pre-asignados lo más rápido posible.

## Auditoriumetik  irtetea

Emanaldia amaitzerakoan, megafonia bidez adieraziko da atetik gertuen dauden pertsonek lehentasuna izango dutela irteteko. Bitartean, ikus-entzuleek euren besaulkietan itxarongo dute eserita, dagokien txanda heldu arte. Mesedez, izan pazientzia.

## Desalojo del Auditórium

Al finalizar la función, se avisará por megafonía sobre la prioridad de salida para aquellas personas que se encuentran más cerca de la puerta. Mientras tanto, el público esperará sentado en sus butacas hasta que les llegue su turno. Rogamos paciencia.

# AGENDA *Kulturala*

**2020 //**
IRAILA
ABENDUA
**LEZO**



**IRAILAK 25**
20:00, Herri Eskolako patioa
**IKIMILIKILIKLIK**



**URRIAK 9**
17:00, Gezala Auditoriuma
**KAXKAROT**



**AZAROAK 13**
17:00, Gezala Auditoriuma
**SAFARI**



**ABENDUAK 11**
17:00, Gezala Auditoriuma
**COTTONDARRAK**




**IRAILAK 26** BERTAN BEHERA SUSPENDIDO
20:00, Herri Eskolako patioa
**BERNARDA...**




**URRIAK 18**
20:00, Gezala Auditoriuma
**URBASA**



**AZAROAK 15**
20:00, Gezala Auditoriuma
**DESAHUCIA2**



**ABENDUAK 13**
20:00, Gezala Auditoriuma
**ABRÉ LA PUERTA**



**IRAILAK 26**
22:00, Herri Eskolako patioa
**OLATZ SALVADOR**



**URRIAK 23**
17:00, Gezala Auditoriuma
**BURBUJA**



**AZAROAK 22**
20:00, Gezala Auditoriuma
**JUANA LA LOCA**



**ABENDUAK 18**
17:00, Gezala Auditoriuma
**OILAR BAT DAGO...**



**IRAILAK 27**
20:00, Herri Eskolako patioa
**EL FUNERAL**



**URRIAK 25**
20:00, Gezala Auditoriuma
**FADOAK**



**AZAROAK 27**
17:00, Gezala Auditoriuma
**ITALINO GRAND HOT**



**ABENDUAK 20**
20:00, Gezala Auditoriuma
**ZOAZ BAKE SANTUAN**



**URRIAK 4**
20:00, Gezala Auditoriuma
**LA CELESTINA**



**AZAROAK 8**
20:00, Gezala Auditoriuma
**LA ISLA**



**AZAROAK 29**
20:00, Gezala Auditoriuma
**WHITE TRANS**



**ABENDUAK 27**
20:00, Gezala Auditoriuma
**MUTU**

HAUR IKUSKIZUNA · ANTZERKIA · DANTZA · MUSIKA